

GIPUZKOAKO HERRI-IPUIN IDATZIAK

Donostia, 1992-III-26

Juan Mari Lekuona

Herri-narratibaren adarrak, egiaz, adarska eta xardanga asko ditu berekin. Eta gaia gaur nahiko zehazturik ematen bazaigu ere —ipuin idatziak eta Gipuzkoako eremura mugatuak—, ukaezinezkoa da alderdi ugari dituela berekin txosten honi dagokion arloak.

Probintziako ipuin munduari begiratuta, bere txikian ere, aniztasuna da lehenik hartzen zaion susmoa. Ipuinak sortaka datoz, kultur mugimendu eta joera desberdinei atzekiak; eta hauen eraginez irakurgai multzoak sortzen dira, eta zabaltzen eta dastatzen; produktu honek, bestalde, azpiegitura bat darama berekin, sortzaileak lanean jartzen direlarik, eta berdin biltzaileak, eta suztatzen ere bai ipuinion zabalkunderako erretanak eta behar diren bideak.

Historian zehar dauden mugimendu, bilduma, autore-biltzaile eta literatur helburuak bereizi eta sailkatzeko, ikuspegi diakronikoa erabiliko dugu, aldian-aldikoa gaingiroki jasoz, eta hari nagusi batzuren barruan emankizunak kokatuz. Eta kultur joerek markatzen dizkiguten esparruetan aipatuko ditugu herri-ipuin hauen ahozko eta idatzizko alderdiak, folklore nahiz autoredun mailakoa den produkzioa, sail bakoitzaren helburu kulturala eta mugimendu bakoitzari dagozkion sostengu eta egitura bistakoenak.

Horrelako egituratze batek, eta ohizkoak zaizkigun eskemetara lan-gaia bilduz, erraztuko zaizkigulakoan nago aipatzen ditugun ipuin eredu-izateko arrazoiak, eta aipatu gabe nahitaez utziko ditugun beste batzuren berezko lekuak. Horrelako ordenulana ezinbestekotzat jotzen dugu, txosten baten mugabarruan gaurko gaia aurkeztuko bada.

1. MITOEN ERNALKUNTZA XVI. MENDEAZ GEROZTIK

Bere *Historiografía de Vizcaya* liburuan Andres E. Mañarikuak esaten diguna nahiko argigarri da gai honi buruz. Izan ere euskaldunak

beren lurraren eta jatorriaren ederraz harro zeudelako edo, bai herri-mailako elezaharretan, bai histori esparruko autoreetan, mitoen sorrera eta garapen bat hasten da XVI. mendean.

Herriaren eta kronisten irudipenean pentsatu beharra dago horrelako eleketen ernalkuntzan. "Herri-irudipena bazterterik ez dago, berau denez leienden berezko iturria. Baina ezin da ahaztu ere, mito asko, nahiz eta geure ikerketez hala dela ezin baieztatu, kronisten orrialdeetan jaiok direla, Bizkaia goratu eta aldezkatzeko afanaz; edota genealogista baten orrialdeetan sortuak direla, leinu bati bere ospea emateko asmoz" (1).

Hiru gai nagusiren inguru biltzen ditu euskal mito horiek: 1) Arrigoriagako guduketa eta Bizkaiko lehen jaunak; 2) Bizkaiko kantabrismoa; 3) aitzinako monoteismoa eta lehen orduko ebanjelizatzaileak Bizkaian. Hiru ardatz hauen inguru gorpuzten da mito eta leienden kopuru esanahitsu eta unibertuala (2).

Biblia oinarritzat duten ipuin-leiendek hizkuntza sendotzeko balio izan dute, Tubalek, Babeleko nahaspilaz geroztik, euskara ekarri zuelarik, eta berau gertatuz Espainiako lehen hizkuntza, dohainez betea. Baina hizkuntza ezezik, egiazko erlijioan, naturako legeetan, zientzia eta arteetan utzi zuten euskaldunen artean Ebanjelioa etorri aurretiko bizibide hauta eta 'egokia' ezin-gehiago.

Erromatarren munduan nolerebaiteko apioa duten kontaera-moduak, euskaldunak kantabroak direla ustearekin jokutzen du, hirurehun kantabresek beste hainbeste erromatarren aurka izaniko borroka aipatzen delarik, Garibaik diogenearen arabera. Erromatarren aurreko askatasuna eta burujabetza adierazten da, bertako gudarien gotortasuna, eta kausaren zuzentasuna.

Eta Erromarekin loturik, bada beste alderdi bat ere, ipuin-mota asko sortzen dituen, genealogiarekin zerikusia duena hain zuzen. Etxe euskaldun batek odolaz eta historiaz erromatar familiekin duen lotura adieraztera datozen hainbat leienda. Genealogistek handizkien familiez jasotako elezaharrak dira, herri-mailan eta kultur mailan bizi direnak, eta guri dagokigunez, herriaren ahotan, dabiltzanak bereziki, batez ere familia bakoitzak etxea eta zainak dituen esparruan, belaunaldiz-belaunaldi konstatzen diren ipuin goresleak (3).

(1) A. E. MAÑARICUA, *Historiografía de Vizcaya*, "La Gran Enciclopedia Vasca", Bilbao, 1973, 143 or.

(2) Id., ibid., 148 eta hur. or. A. IRIGOYEN, *La época de Astarloa, Moguel y Humbolt*, in "Actes du colloque international d'Etudes Basques" (Bordeaux 3-5 mai 1973), "Société des Amis du Musée Basque", Bayonne, 1978, 149 or.

(3) Adibide modura ikus, J. MORET, *Anales del Reino de Navarra*, "Eusebio López", Tolosa, 1881, 7 t. (XXXVI lib., VII kap., 26 z.), 496 or. M. LEKUONA, *Del Oyarzun antiguo*, "Diputación de Guipúzcoa", 1959, 25 or.

Ipuin eta leienda hauek kroniketan eta erdaraz emanik badatoz ere asko, horiek berak herri-mailan, eta euskaraz, kontatzen dira, oraindik-orain ere entzun daitezkeelarik kontalari herrikoien ahotik. Eta ez hori bakarrik: kondairak ezezik, tradiziozko adierazpenak, esaldiak, eta hitz formulak entzuten dira, ahozko estiloaren adibide landuenez jantziak. Eta mito nahiz leienda hauei buruzko bilduma kritikorik ez badaukagu ere, hauek lirateke Gipuzkoako ipuingintzan lehenik eta behin aipatu beharrezko herri-narratiba ereduak.

2. EUSKAL LEIENDAK XIX. MENDEAN

Tradizio erromantikoaz ari gaituzu. Erdaraz idatzitakoak dira ia denak, eta lituraturgileen sorkuntza eta idazkeratik ia dena duten narrazioak dira (4). Hala ere, erdara-euskara bi hizkuntzen tradizioek beren artean duten sinbiosiari amore emanez, eta berdin ahozko-idatzizko bi munduek duten elkar-eraginari, hemen aipatu behartzat jotzen dugu erlatu kultu hauen altxor berezia.

Ez dira tradiziozko leiendak bere horretan hartuak, usariozko erlatua beste era batera ematen dutelarik; ez dira ere asmatutako narrazio bati osagai folklorikoak eransten zaizkion leienda modukoak; baizik eta dira tradizioan agertzen diren gaien imitazioz eginiko erlatuak, baina tradiziozko kontaeraren birsorketa bat egin gabe (5).

Euskal leiendisten zerrendan Jon Juaristik bere hitzaurre mamitsuan aipatzen digu Truebak "nolerebaiteko eragina izan zuen euskal leiendisten artean, mendearen azkenetan "Truebaren eskolaz" hitzegiten hastearaino. Eskola honetakoak lirateke Arakistain, Bizente Arana, Campion, Iturralde eta abar" (6). Eta eragin hori handia zen edo ez alde batera utziz, Gipuzkoari dagokionez, bi izen lirateke bereziki aipatu beharrak: José María Goizueta bere *Leyendas vascongadas* (Madrid, 1851) liburuarekin eta Juan Benantzio Arakistain bere *Tradiciones vasco-cántabras* (Tolosa, 1866) liburuarekin, eta *El Baso-Jaun de Etumeta* (Tolosa, 1882) bere nobela historikoarekin, Hauek lirateke aipagarrienak guri dagokigun arlorako.

Bakoitzaren ekarria azpimarratzeko, esan dezagun, José María Goizueta gipuzkoarra izanik ere, Madrilen bizi izan zela. Karlistateaz idatzirik liburuez gain, *Leyendas vascongadas* izango zen osperik handiena eman ziona, birrargaratua izan zelarik Madrilen, 1851, 1854, 1856, 1866an, eta Bilbon 1901an. Honela dio sarreran: "Nire herrian gutxi-asko sustrai-

(4) J. JUARISTI, *La tradición romántica. Leyendas vascas del siglo XIX*, "Pamiela", 1986, Introducción, 11 eta hur. or.

(5) Id., *ibid.*, 23-24 or.

(6) Id., *ibid.*, 35 or.

turik dauden sinesteak aterako ditut plazara” (7). Eta gure herri hau topografiak Eskozia, Irlanda, Alemania eta Hebridasen antzekoa den bezala, fantasiako enteak sortzeko joeran ere antzekoa da. Ente horien izenak ezagunak dira, hala nola *Lamiak* kostalde ekaiztsuan, *Bassa-jaon edo jauna* azken gabeko basoetan, *Maitagarriak* oihan itzaltsuetan, *Sorginak* zabaldegi bakartietan eta ur-azkarrek idekitako ubide sakonetan (8).

Mitologiako hitz hauek berak dira ia, liburuko bost leiendei beren izenburua damaietenak: “Aquelarre”, “Lamia” (Leyenda marítima), “Baso jauna”, “La bocina de Roldán”, eta “Maitagarri”. Gaiei buruz esaten da “Chahorengandik datozela Goizuetaren leiendetako osagai ez gutxi, baina beste osagai ugari badaudela tradizio folklorikotik hartuak direnak (9). Eta Goizuetaren estiloa biderdi dagoela dio Juaristik erromantizismoa eta errealismoaren artean.

Beste alderdi bat azpimarratuz egingo digu Juan Benantzio Arakistain-ek bere tradizioen aurkezpena: “nolako garrantzi historiko eta kulturala duten herri mailako kantu, leienda eta ipuinek, berauek sinesteen isladapen bat direnez, eta joandaneke belaunaldiek zituzten sentipenen oihartzun leial” (10). Eta esango digu, pentsalari sonatuek arretaz ikertu dituztela, eta bakarrik horiei esker barrendu direla aintzinako gizarteen ilunbeetan, nahiz eta gizarteok mundutik ezkutatu diren, beren pentsamoldearen, zibilizazioaren eta bizitzaren segetua berekin eramanez (11).

J.B. Arakistain debatarra genuen jaiotzez, eta jaioterriari aski lotua ere bai bere leiendetan, berauek Deba inguruko parajeetan kokatzen ditu, herrialde honi dion atxekimentua agertuz. Nahiko argigarri dira bere “euskal tradizioen” aurkibideko izenburu-zerrendak: “Gau-illa”, “Hurcamenti”, “La emparedada de Irrazabal”, “Los Cántabros: Primera parte: Hirnio; segunda parte: Roma”, “Las tres olas”, “Beotibar-co-celaya”, “La hilandera de la capilla” eta “La Dama de Murumendi”. Eragina izan zuen, ez bakarrik idazleengan (Katalina Elizegi, Jon Etxaide, Nemesio Etxanizengan) (12), baita euskarazko herri-literaturan eta bertsoaritzan ere. Poemak ere euskaraz idatzi zituen eta ahalegin bat egin ere bai bere idazlanak egiazko tradizio folklorikoan errotzen” (13), beste leiendistek ez bezala egin ere.

(7) J. M. GOIZUETA, *Leyendas vascongadas*, “D. F. García Padrós”, Madrid, 1851, VIII or.

(8) Id., *ibid.*, IX or.

(9) Id., *ibid.*, 11-39; 41-81; 83-103; 105-135; 137-179 or.

(10) J. V. ARAQUISTAIN, *Tradiciones vasco-cántabras*, “Imprenta de la Provincia”, Tolosa, 1866, 3 or.

(11) Id., *ibid.*, 3-4 or.

(12) L. MITXELENA, *Historia de la literatura vasca*, “Minotauro”, Madrid, 1960, 137 or.

(13) J. JUARISTI, *ibid.*, 37 or.

Tradizio erromantikoak jaioarazitako euskal leienda hauek urruntasun bat bazuten herri-narratibari buruz, erdaraz idatziak zeudenez eta kulturdunei zuzenduak. Baina, bestalde, mende erdi batez gora iraun zuen eleberrigintza izan zen, Euskal Herri osoan zehar bere lekukoak utzi zituena, eta ospe bat zuten erdal idazleek landuriko alorra. Baina era berean esdan daiteke leku bat duela euskal prosa narratiboaren sorreran eta garapenean, eta bereziki prosa horren oinarri izango ziran “irakurgaietan”.

3. IRAKURGAIK ETA IPUIN BERRIAK

Bigarren karlistatea bukatu ondoren, Donostian sorturiko literatur mugimenduak zerikusi handia du hemen aipatzera goazenarekin. Kontaera laburreko herri-narratiba bat indartzen da, emaitza ugaria eta barreiatua eman zuena. Bi zutabe hauen apioan tinkatzen dira eskuarki: “itz-jostaldietako” irakurgaiak eta zenbait aldizkaritako ipuinak.

3.1. Irakurgaiak

Narratibagintza honen garrantzia azpimarratu digu Ana Toledok bere tesilan bikainean. “Leiendagileak ezagutuko ditu euskal literaturak, eta badirudi leiendagintza honen sorrera Donostiako ‘Itz-jostaldietan jarri behar dela’, ‘Donostiako Euskal izkribatzalleen indar neurtzeak 1879. urtean egitaraeuan egindako deialdian eta deialdi honek izandako erantzunean’ ” (14).

“Irakorgai” hitzarekin izendatzen dutena gazteleraz “tradición o leyenda”-rekin ematen da. Eta edukinari bagagozkio, deialdietan aipatzen da “kondairen baten ezagualde labur bat, edo gure oitura oroitgarriren baten gañean”, edota “gure aurrekoai aditutako kondairen bat”: horrela adierazten da lehiaketaren gaia.

Urterik urte ematen digu Ana Toledok irabazleen eta saritutako izenburuen zerrenda. Laburpen batek aski garbi utziko duelakoan gaude altxorraren jitea eta autoreen nortasun eta berezitasuna.

1879 Lehen Saria: “Zer nitzan? Zer naiz?”.

“Aldeera”: “Antiguako Ama Virjiña”.

Lehen aipamena: “Liburu bateko pasarte bat”.

Bigarren aipamena: “Jesus-en lagundiko Aita Manuel Larra-mendiren bizkontaera” (15).

(14) A. TOLEDO, *Domingo Aguirre: euskal eleberraren sorrera*, “Bizkaiko Foru Aldundia”, Bilbo, 1989, 69 eta hur. or.

(15) Id., *ibid.*, 70 or.

- 1880 Lehen Saria: Jabegabe.
Aipamen onragarria: M. GILBEAU, "Orruel arpeko zuhurra".
- 1881 Lehen Saria: A. CAMPION, "Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak".
Aipamenak: G. ARRUE, "Gurasoakin zu nola, zure umeac zurekin ala"; eta J. LARRETA "Irakurgaya".
- 1882 Lehen Saria: G. ARRUE, "Aspaldi ayetako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste".
Aipamena: K. ETXEGARAY, "Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren aziera".
- 1883 Lehen Saria: A. CAMPION, "Okendoren eriotza".
Aldeera: K. ETXEGARAY, "Andeka".
Aipamena: A. ARZAC, "Pachi ta Konchesi".
- 1884 Lehen Saria: K. ETXEGARAY, "Gurasoaren zigorra".
Aldeera: G. ARRUE, "Zarauzko ondekidatzea".
- 1885 eta 1886: "Jabegabetuak", irabazlerik gabe.
- 1887 Lehen Saria: K. ETXEGARAY, "Malko bedeinkatuak".
Deskripziorik onenarentzat: A. M. ZABALA, "Gabon gau bat Euskal-erriko baserri batean".
- 1888 Lehen Saria: K. ETXEGARAY, "Antziñako gertaerak".
Deskripziorik onenarentzat: F. LOPEZ ALEN, "Donostia".
- 1889 Lehen Saria: F. LOPEN ALEN, "Lezoko Santo Kristoren eleizachoa".
Aldeera: T. ALZAGA, "Itziar".
- 1890 Lehen Saria: F. LOPEZ ALEN, "Antziñako Nafar-mendiko oroitz bat".
Aldeera: K. ERXEGARAY, "Euskaldun bikaiñ bat".
- 1891 Lehen Saria: K. ETXEGARAY, "Kontu zarrak".
Deskripziorik onenarentzat: T. ALZAGA, "Okendo".
Aldeera: R. MURGA, "Arrechinaga".

Hauek dira Donostiako Euskal Festen inguruan, "itz-jostaldi" lehiaketan sorturiko azkenengo leiendak (16). Azpimarra dezakegu, euskal prosa narratibaren sorrera ikertzerakoan aipagarri gertatu direla testuok,

(16) Id., ibid., 70-76 or.

prosa horren sorrera eta garapena markatuz. Eta gero eta nabariago dela dirudi euskal narratibaren barruan ahozko mailatik idatzizkora ematen den urrats jakingarria, erdaraz mamituriko leienden loratze bat finkatzen eta indartzen dela.

3.2. Ipuinak

Beste narratiba multzo bat bada aldizkarietan sortu eta garatu zena. Hango eta hemengo kontuak dira, eguneroko bizitzan gertatu eta norbaitek jasotako gertaerak direlarik eskuarki. Hala nola, pertsonaia herrikoiien pasadizuak, zelebrekeriak, ofizio eta izaera bereziko jendeak, berritxuke-riak, ipuin zarrak, herri jakinetako kontakizunak eta izen propioa dutenen esan-eginak.

Aldizkarietan entretenigarri zetozen irakurgaiak ditugu. Eta Gipuzkoari dagokionez, hauek lirateke ipuingintza hori bildu duten aldizkari jakingarrienak: “Euskal-erria”, “Baserritarra”, “Euskal Esnalea” eta “Argia”. Ipuin trukea egin ohi da errebista batetik bestera, eta bateko ipuinak bestean errepikatzen dira, berorien garrantzia eta nolerebaiteko beharra aitortzen zaiela errepikatzeaz.

Kontaera hauen aurkezpenik beteena *Baserritarra* aldizkarian dauka. Honela du izenburua: BASERRITARRA/ Probintziako ganaduen terramako albistaria/ Ateratzen dá amabostean bein”/ Eta ohar aipagarri hau azkenean: “Imprenta y Litografía de V. Iraola”. Hasieran ganadutza-ko kofradia deitzen zena, gero, bostgarren urtetik aurrera, “nekazarien albistaria” deitzen da.

Denetik dago lau orrialdeko izpar hauetan: albiste teknikoak, berriak, olerkiak, izkirimiriak, kontuak eta abar. Baina neurri eder batean ipuinak eta kontaerak. Eta autoreen zerrenda nahiko oparoa dugun arren, hauek dira sorta ederrenak eskaintzen dituztenak: V. Iraola, P. M. (Pedro Migel Urruzuno), “Gatz-errota” ezizenez agertzen zaigun beste bat, Juan Jose deritzan bat, Albisturtik bere kontakizunak bidaltzen dituena, eta beste hainbat izen lan berean ari direnak, nahiz neurri desberdinean.

Ildo beretik doaz *Euskal-erria*, *Euskal Esnalea* eta *Argia*-n agertzen diren kontuei buruz: “Ipui auek, beti edo geyenetan beintzat, eguneroko bizitzan gertatu ta norbaitek jasoak izaten dira. Euskeraz izen bat baño geyago dute: gertaera, gertakizuna, pasadizoa, ateraldia, aterakaya...itz oyek danak gauza ber-bera adierazten ez badute ere” (17). Hemen zehaztu beharra legoke, V. Iraolak bere etxean ateratzen zuen “Baserritarra”-n

(17) A. ZAVALA, *Itzaurrea*, in “Aizkolariak eta beste ipui asko”, “Auspoa”, 23 z., Zarauz, 1963, 10 or.

idazten duela batez ere, Urruzunok lehen aldian “Euskal-erria”-n idazten duela, eta geroago *Baserritarra*-n, eta A. M. Zabalak, bestalde, gehiago agertzen zaigula *Euskal-erria*-n gero aipatuko dugunez.

4. AHOZKOTASUNAREN BILKETA ETA SISTEMATZEA

Bi ikertzaile erraldoi ditugu herri-narratiba biltzen eta sistematzen arituak: R. M. Azkue eta J. M. Barandiaran. Asko izanik ere eremu hori bera landu dutenak gure artean, bi izen hauek markaturiko mugabarruan dabilta eskuarki bilketa eta sistematze zereginetan jardun dutenak. Horregatik bi ereduok aipatzearekin egintzat ematen dugu antzeko beste lanen aipamena.

4.1. R. M. Azkue

Azkueren helburuetako bat da, euskaraz bizi den herri-literatura aurkeztea. Disziplina honen kapitulu nagusienen berri ematea. Ordenu eta sailkapen lanetik gehiago nabari zaio azterketatetik baino, nahiz eta beti agertzen duen autoreak hainbat notizia eta ezaguera eskuartean duen gaiari buruzkoetan.

Hain zuzen, bere *Euskalerraren Yakintza*-ko lau tomoetan, bigarrena “Cuentos y leyendas” deritza, erdal izen buru hau “Ipuin eta irakurgaiak” izenburuz itzultzen digularik. Eta liburuki hau Azkuek herri-literaturaren kapitulu berezizat jotzen du.

Ahozko literaturaren ikuspegi osoa eman nahi digu lekeitiarrak, lehenago Vinson-ek egin izan zuen antzera (18). Baina oro har, folklorista ikuspegitik gehiago sakatzen du bere ikerkuntzak, literaturaren aldetik baino. Campus-lana da, batez ere azpimarragarria Don Resurrekzionen lana ahotan hartzen dugunean. Baina horrelako bilketa bat argitaratzeak dituen arazo nagusiak arakatzen eta erabakitzen ditu: sailkapenak, herri-kiko konparaketak, lankideen jatorria eta izenak, folklorista ikasi baten kultur ikuspegi estimagarriak.

Gipuzkoari dagokionez, hona Ipuin eta irakurgaien zerrenda:

- 6. Alostorrea (Elgoibar)
- 12. Amen (Hernani)
- 44. Erregeren aurpegia (Ataun)
- 47. Erroketxo ta ama (Arrona)

(18) J. VINSON, *Le folk-lore du Pays Basque*, in “Les littératures de toutes les nations”, 15 t., “Maisonneuve”, Paris, 1863.

- 58. Jesukristo ta San Pedro (Ataun)
- 84. Loidiko neskatxa (Amezketeta)
- 103. Peru ta Mariya (Arrona)
- 114. San Martin ta Basajauna (Ataun)
- 120. Tartalo (Ataun)
- 130. Zegamako bilindrinak (ahuntz-gorotza) (Elgoibar)
- 137. Antoxin garbia ta zikina (Ataun)
- 140. Arrastangi jentil-arria (Ataun)
- 145. Artzain izukaitza (Ursuaran)
- 149. Azelaingo zubia (Hernani)
- 177. Ilargia (Matxinbenta, Antzuola)
- 184. Juan Migel (Amezketeta)
- 186. Kazkinak ta kazkindunak (Amezketeta)
- 187. Kito (pastor guipuzcoano)
- 200. Maisu guztien maisua (Ataun)
- 205. Mateo Txistu (Amezketeta)
- 216. Peru Amundarain (Ataun)
- 224. San Pedroren urdalla (Ataun)
- 235. Txindokiko Maria (Amezketeta)
- 236. Urrezko izara (Ataun) (19)

Benetan estimagarria da *Euskalerrien Yakintzako* bigarren tomoa irakurtzeak uzten duen atze-arrastua. Egia da, bai, zenbaitzutan galtzen dela ahozkotetasunak hain berea duen leuntasuna eta egiatasuna, zuzenketak direla medio. Baina altxor bikaina dela esan behar Azkuek utzi digun ondarea. Akatsak akats, monumentu bat da Azkueren ekarria euskal literaturzaleentzat.

4.2. J. M. Barandiaran

Argi eta garbi adierazirik dago “Eusko-folklore”-k duen lehen eta zuzeneko helburua: “Euskal izpirituak bere baitatik sorturiko emaitzak hor dira, iraganaldi baten ondore ez-materialak, leienda, tradizio, sineste, ohitura eta erlijio nahiz magiako ekintzen itxurapean guganaino iritsi direnak; eta osagai guzti hauek beren artean dituzten harremanak, eta berauek sistemapean sailkatzea da euskal folkloreaken helburu lehen eta hurbilekoena” (20).

(19) R. M. AZKUE, *Euskalerrien Yakintza*, 2 t., “Espasa-Calpe”, Madrid, 1966. Ipuin eta irakurgiak liburuko zenbakiaz emanik.

(20) J. M. BARANDIARAN, *Eusko Folklore*, “Obras Completas”, 2 t., “La Gran Enciclopedia Vasca”, Bilbao, 1973. Ipuinak eta leiendak liburuko zenbakien arabera emanik, 240 eta hur. or.

Bigarren tomoa hartzen dugu gogoan, "Cuentos y leyendas" izenburupean emaniko kapituluak. Autoreak berezi egiten ditu ipuinak eta leiendak. Herri-narratiba ipuina denean, orduan pertsonaiak, lekua, denbora eta ekintza zehaztu gabeak dira. Hauek dira formulak: antziñan, etxe batean, aita bat bi semekin bizi omen zen, eta abar. Eta leiendan, bestalde, pertsonaiak, lekuak, denborak eta ekintzak mugatuak eta zehaztuak dira.

Ipuinak eta leiendak, Gipuzkoari dagokion zerrenda aukeraturaz:

1. Artzaia ta sugea (Ataun, Mutriku, Andoain)
3. Jentil indartsua (Ataun)
6. Zozoa, usoa eta azeria (Azkoitia)
7. Axerko, otsoko eta beleko (Amasa)
8. Axeria, eta errotako txakurra (Azkoitia)
12. Otso zauritua eta axeri zalduna (Ataun, Azkoitia)
16. Astoa eta otsoa (Ataun, Baliarrain)
22. Otsoko ta mandoko
24. Otso jaunaren nagusitasuna (Usurbil)
27. Pixtiyun gerra (Oiartzun)
28. El hombre, la culebra y la zorra (Gregorio Mujika)
29. Makillakiski (Ataun)
30. Andre doakabea (Ataun)
31. Kastillanoprango (Ataun)
32. Dar-dar (Ataun)
33. Gizon arrigarria (Bidania, Azkoitia)
34. Patxi Errementarie (Ataun)
35. Gatza ala erregea (Ataun, Oñati)
36. "Errauskiñe" (Oñati)
37. Kanillo arrantzalea ta Kanillo-txiki (Ataun)
38. Zapataitxikin ipuie (Ataun)
40. Zapataitxiki errukitsun ipuie (Ataun)
41. Beñardo (Erretereria, Oñati)
42. Kukubiltxo (Azkoitia, Andoain, Oiartzun, Donostia. Hau bera bertsotan Serafin Barojak moldatua)
43. Ire gogamena neretzat, nere dirua iretzat (Ataun)
44. Bi zintzo, ero bat (Ataun)
45. Sorgin gaizton ipuie (Ataun)
46. Labasue, egursortak eta sarie (Ataun, Oñati)
47. Lau indartsuen ipoia (Zegama)
50. Biantxaren ordaiña (Zegama)
51. Estudiante Tonto (Oiartzun)

Barandiaranek, jakina denez, euskal hitzaren baitan bizi den euskal kultura mamitu nahi izan du, munduari buruz, harandikoari buruz eta kosmosari buruz duen ulerkuntza sistematuraz. Baina oraindik erabilgarri-

tasun handiagoa eduki dezake literatur alorrean, batez ere ahozko estiloa mamitu eta erabili ahal izateko orduan. Literatura nazionalaren helburupean ezin estimagarriagoa zen mundu hau, bere horretan bildua, herriari ahotik darion moduan, inolako zuzenketarik gabe. Euskal estiloak narratibarako eskaintzen duen erredua eta 1 psiko-dinamika berezia.

5. HERRI-IPUINEN BIRZIKLAKETAK ETA KONTSUMOKO BILDUMAK

Espainiako gerrondoan, herrikoitasunaren eta euskara biziaren amorez, eta liburuak gure artean hartu zuen gorakada eta lehentasuna gogoan, sortu eta indartu zen inoiz ez bezala irakurgai liburu errazak eta erakarriak argitaratzeko joera.

Egokiera hau oso gogoan edukiz, eta ipuin liburuen bildumari begira, bi argitaletxe genituzke Gipuzkoan langintza berezia aurkeztu dutenak: “Kulista Sorta” bata, eta “Auspoa” bestea. Lehenengoa aspaldi suntsitua, eta bigarrena oraindik bizirik dirauena, sortzaile izaten ere jakin duelako hasierako koordenaden barruan.

5.1. Kulistas Sorta

“Itxaropena” argitaldaria zuzentzen du bilduma hau, 1952an hasiz eta 1973an bukatuz. Gure arloari begira, hauek dira arretaz hartzeoak:

— L. JAUREGI, *Ipuiak* (1953), 4 zenb.

— A. SORRARAIN, J. GALARRAGA, J. GARAIALDE, *Elezarrak. Arraun eta amets* (1955), 7-8 zenb.

— A. IRIGARAY, *Euskalerriko ipuinak* (1957), 17-18 zenb.

— J. SAN MARTIN, *Zirikadak* (1959), 35-36 zenb.

— J. AZPEITIA, *Amandriaren altzoan* (1961), 45-46 zenb.

— L. VILLASANTE, *Aitonaren uzta* (1961), 47-48 zenb.

— J. SAN MARTIN, *Eztenkadak* (1965), 57 zenb.

— R. ZULAIKA, *Ipui jatorrak* (1967), 66 zenb.

— R. M. AZKUE, *Antziñako ipuiñak* (1968), 68 zenb.

— I. LINAZASORO, *H gabeko umorea* (1970), 72 zenb.

5.2. Auspoa

Ibilpide luzea da “Auspoa”-k egin diguna: aldizkaritako ipuin eta kontuak biltzen hastetik, nobelak idatzarazi eta argitaratzeraino, aldian-aldiko eskakizunei erantzun bat emanaz. Eta desberdintasun nabariak egonik ere liburuon artean, garbi erakusten digute ipuin-liburuek hartzen duten hedadura eta nola indarberritzen den herri-narratibaren usariozko altxorra. Aipa ditzagun eredurik jakingarrienak:

– F. APALATEGUI, *Euskal mutillak armetan* (1961), 3 zenb. Karlis-ten gerrateko oroipenak.

– P. M. URUZZUNO, *Euskalerritik zerura ta beste ipui batzuk* (1961), 5 zenb.

– B. IRAOLA, *Oroitzak eta beste ipui asko* (1962), 9 zenb.

– A. M. ZABALA, *Gabon gau bat ta beste ipui asko* (1962), 16 zenb.

– A. ZAVALA, *Txirrita (Bizitza ta bat bateko bertsoak)* (1962), 18-19 zenb.

– ASKORENAK, *Aizkolariak ta beste ipui asko* (1963), 23 zenb.

– M. ELICEGUI-A. ZAVALA, *Pello Errotaren bizitza, bere alabak kontatuta* (1963), 32 zenb.

– S. SALABERRIA, *Neronek tirako nizkin* (1964), 38 zenb.

– P. M. URRUZUNO, *Iru ziri (Ipui ta bertso)* (1965), 47 zenb.

– Id., *Ur-zale baten ipuiak* (1965), 51 zenb.

– Id., *Sasiletrau baten ziria ta abar* (1973), 113 zenb.

Ipuin bilduma hauetaz aparte, neurri zabalagoko eta arnasa zabalago-ko liburugintza garatu digu “Auspoa”-k: eleberriak, oroitzapenak, irakur-gai luzeak. Idazleen izen andana ere ekarri digu, langintza hauetan jantzia: Ataño, Salaberria, Irazusta, Alkain, Mari Treku, Txomin Garmendia, Azpiroz eta abar. Ekarki bikaina euskal prosagintzan. Baina gai honetaz bada mintzaldi bat A. Zavalak berak emango diguna, hara igortzen dugularik gaiaren agerpena.

AZKENA

Gipuzkoako herri-ipuin idatzien arloa zabala zela bagenekien, eta nahaspilatua zela ere bai. Ordenulanean aritu gaituzu, diakronia abiapuntuz hartuz, eta sail bakoitzeko zenbait ezaugarri markatuz: autoreak, mugimenduak, literaturgintza eta honen azalpena eta erabilkera. Ez zen

gure asmoa —ezin izan zitekeen—, den aipatzea, hari nagusiak ezartzea baizik. Eta aipatu gabe geratzen diren autore, aldizkari, mugimentu eta abarrak, aurki dezakete beren kokalekua honelatsuko sailkapen baten barruan.

Bestalde, bilakabide bat nabari daiteke Gipuzkoako ipuingintzaren kondairan, eta sinbiosis bat haztatu daiteke azpisail horien artean, batez ere loraldi kultoen eta herrikoien artean. Eta gero, nahiko tajuz usmatu daiteke herri-ipuinen balioztatzean baldintza sozio-kulturalek eduki duten eragin ukaezina. Ipuingintza kultoa eta herrikoia historiaren argumentu izatetik, eta leiendak gure intrahistoriaren lekuko argi zatetik, eta gure herri-kontaerei tratamentu zientifiko bat ematetik, iragon gara beroriek entretengarri bizi eta gogozkoenak izatera, kulturak herrian eta herriak kulturaren beren eragina dutela.

Horrelako sailkapen batek lagunduko al-digu hobeto ulertzen, lehenik Gipuzkoako ipuingintzaren historia eta gero gertakaria hauek euskal eleberrigintzan izan duten zerikusi erabakiorra. Hurbilketa hauek behar dute izan abiapuntu, euskal narratibagintza sakon dezagun eta baliozta berari dagokion neurri zuzenean.